

### **FATXADAK MARGOTZEKO DIRU LAGUNTZA PROGRAMA:**

- Diru laguntza Ezkioko udalerrian kokatuta dauden baserri edo etxeak pintatzeko (pintatu, egokitu, barnizatu eta abar), edo fatxadak garbitzeko izango da era honetan:
  - o Pintatzeko kasuan (pintatu, egokitu, barnizatu eta abar) baserria edo etxea etxebizitza bakarrekoa denean laguntza 400,00 euroko izango da, eta bi edo gehiagokoa denean 800,00 eurokoa izango da.
  - o Fatxadak garbitzeko kasuan, baserria edo etxea etxebizitza bakarrekoa denean laguntza 200,00 euroko izango da, eta bi edo gehiagokoa denean 400,00 eurokoa izango da.
- Lanak hasi aurretik, Udalari obrak egiteko baimena eskatu beharko zaio.
- Udalak urteko aurrekontuetan gastuei aurre egiteko behar den kontsignazioa jasotzeko konpromezua hartzen du.
- Diru laguntza kobratzeko lanak amaitu direla jakinarazi beharko zaio Udalari, eta jakinarazpena jaso ondoren Udalak teknikoak bidaliko du lana egin dela ziurtatzeko.
- Diru laguntza jasotzen duenak (pintatzeko nahiz garbitzeko) ez du diru laguntza berririk jasotzerik izango (ez pintatzeko ez garbitzeko) hurrengo 10 urteetan salbuespen honekin:
  - o AHTko obregatik kaltetutako eraikinen kasuan, nahiz eta 10 urte ez pasatu, eskatu ahal izango dute berriro diru laguntza eskaera. Kasu honetan lan osoa interesatuaren kontura denean diru laguntza kopuruak mantendu egiten dira. Fatxadaren bat obren arduradunen kontura egin denean eta etxebizitza bakarra denean dirulaguntza fatxada bakoitzeko 100,00 eurokoa izango da pintatze kasuan eta 50,00 eurokoa garbitze kasuan, eta 200,00 eurokoa pintatze kasuan eta 100,00 eurokoa garbitze kasuan fatxada bakoitzeko 2 etxebizitza edo gehiagokoa denean.
- Programa honen interpretazioaren aurrean edozein zalantza izan ezker, Udalak izango du eskumena dagokion erabakia hartzeko.